

Txama Integrazio Topagunea

TXAMA
Integrazio topagunea



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektua aurrera eramateko, funtsezkoa dugu udalarekin harremanetan jartzea. Udala, lokala zein hezitzaile adituen soldatak ordaintzeko ezinbestekoa dugun elkarte da. Horregatik, gure enpresa izaera mistokoa izango da, nahiz eta, gu geu, sortzaileak, jabeak izan, udalarekin elkarlanean jardungo genukeelako. Bazkide edo hornitzaile hauek, gure proiektua aurrera eramateko garrantzitsuak dira, zeren eta udalak diru-laguntzak, lokala eta hezitzaileentzako soldatak emango dizkigutelako, baina guk ere topagunea aurrera eramateko administrazio eta kudeaketa lanak egingo genituzkeen, esaterako, publizitatea egiten eta informazioa zabaltzen.

Horretaz gain, Cáritas, Gurutze gorria, Hotz Oñati, Hermansoloña, Herriko Elikagai Bankua eta CEAR gobernuz kanpoko erakundearekin (Oñatin errefuxiatuentzat dagoen zentroa) elkarlanean arituko ginateke, puntu komun asko ditugulako eta herriko ongizatea lortzeko indarrak batu ditzakegulako. Elkarte hauek, ordea, ez dira funtsezkoak izango, haiek gabe gure proiektuak aurrera jarraitu dezakeelako, ez baina, udalaren laguntza gabe.